

sociedad

gipuzkoa

sociedad@noticiasdegipuzkoa.com

KILOMETROAK 2007 >

Herriak ere oso argi dauka

ARANZADI IKASTOLAK ANTOLATUTAKO KILOMETROAK JENDETZA BILDU ZUEN BERGARAN

Eguraldia lagun, festa giroa nagusitu zen eta guztia kontrolpean izan zedin ia 2.000 herritar aritu ziren lanean

ARANTZAZU ZABALETA

BERGARA. Bergararrek argi zeukaten. Hala zioen aurtengo Kilometroetarako aukeratutako leloak. Eta atzo Debagoieneko herrira gerturatu ziren milaka euskal herritarrek oker ez zeudela frogatu zuten. Urtero bezala, eta eguzkia lagun, Gipuzkoako ikastolen jai eguna festa handia izan zen.

Goizeko 9.00etarako kalean ziren jada bergarakuak. Alboan, Ukan euskararen birusa ere bazuten. Bisitari gehienak oraindik heldu gabe, herritarrek izan ziren jai egunari ongietorria eman ziotenak, lagunartean, ekitaldi xume batekin. Aranzadi ikastolako jolasokian hasi zuten festa: Edu Muruamendiarazek dantzatutako aurrekuari ahotsa jarri zion Uxue Rodriguezek. Herriko, ikastolen elkarteko eta erakundetako ordezkarien hitzen ondoren, Aranzadiko beste ikasle batek, Uxue Agirrek, ikastola sortu zuten garaikoak gogora ekarri zituen ipuin batekin, irrintzi eta txalparta doinu eta dantzarien erakustaldiaren laguntzarekin.

Azkenean, ikastolaren proiektua benetan gauzatzea lortu dutenak herritarrek direla eta Aranzadiko guraso eta familiak omendu zituen atzoko Kilometroak, "hasiera-koak, oraingoak eta gerokoak", Unai Azkarate koordinatzaileak esan zuen bezala. Eta horien guztien izenean, Ugarte Umerez sendiko hiru belaunaldi izan ziren zirkuitoko zinta mozteko ardurdunak eta, beraz, aurtengo jai egunari ofizialki hasiera eman ziotenak.

ZIRKUITOAN 6,5 kilometroko luzera zuen herrian zehar prestatutako ibilbidean jendea zebilen jada 10.00etarako. Gurasoak umeekin, helduak eta gazte batzuk ere bai. Izan ere, Kilometroetako lehen orduetan zirkuitoa izan zen protagonista, bisitariak guneetara heldu ziren arte. Zirkuitoa laua zen orokorrean eta zati gehiena asfaltatutako bidetik zihoan, Bergarako auzoak zeharkatzen eta euskaltzaleak herriguneko erakuntza eta txoko esanguratsuenetara bideratzen.

Minutuek aurrera egin eta zirkuitoa betetzen hasi zen, baita

guneak ere, eguerdirako hainbat ekitaldi martxan baitziren. Puzgarri eta umeentzat prestatutako tailerretan lehenengo ilarak ageri ziren, bokata eta edarientzako tiketak saltzen zituzten postuetan bezeroak pilatzen hasi ziren eta taula gaineko dantza eta musika ikuskizunak txalotzen ere ehunka pertsona zeuden jada. Gazte talde batzuk lurrean eseri ziren, ogitar-tekoa eskuan eta sagardo botila erdian, besteak dantzan hasi ziren, taula gainetik zetozen arin-arin eta fandango doinuekin, eta ibilbidea egin ondoren gose zeuden beste askok, kolak sortu baino lehen, taloa jateko aukera ez zuten galdu. Hamaiketako jaten hasi zirenerako, hodeiak joan eta eguzkiak berotzen zuen.

BOLUNTARIOAK Guztia antolatzailerak aurreikusitako bezala zihoan, besteak beste, goizean goizetik lanean ari ziren ia 2.000 bergararrei esker. "Beharra zegoen lekura bidali gaituzte", kontatu zuen, barrez, Mari Carmen Gutierrez Aranzadiko irakasleak. Beste lauzpabost lagunekin, plastikozko poltsa esku batean eta erratza eta pintzak bestean, ikastolan kokatutako gunean zakarrak jasotzea egokitu zitzaion. "Orain nahiko lasai ari gara, arratsalde partean akumulatuko zaigu lana", azaldu zuen. 8.00etarako kalean ziren lanerako prest; zein ordurako bukatuko zuten, ezin jakin. Hala ere, pozik zeuden, "tarteka" aprobetxatzen baitzuten kontzertu edo emanaldiren bat ikusi eta lagunak agurtzeko. "Hau auzolana da, ikastola bezala", gaineratu zuen Gutierrezek.

Hura bezala, Miriam Guridi eta Ana Arrizabalaga gurasoek ere "antolakuntza" zioen pegatina zeramaten kamisetan. "Festa? Bai, baina beste modu batean bizitzen ari gara gu aurten", aitortu zuen Guridik. Barra atzean egotea tokatu zitzaion, edariak zerbitzatu eta baso berrerabilgarriak banatzen. Izan ere, aurtien lehenengo aldiz, Ikastolen Federazioak sortutako plastikozko 150.000 edalontzi banatu zituzten, eta horrek garbitze lanak ere erraztu zituen.

Beste hainbat boluntariok, ordea, jai giroa urrutia gotik bizi behar izan zuten: bai aparkalekuan, eta baita herriko sarretan ere, trafikoa antolatzeko lanetan ari ziren. Antolatzailerak ia aparkaleku guztiak bete zirela nabarmendu zuten, baina auto ilara luzerik ere ez zela sortu, ez goizean eta ez arratsaldean. Autobusak ere normaltasunez ibili ziren.

Anje Duhalde, Pantxoa eta Peio, Kauta, Txan Magoa eta Betizuen emanaldiek erakarri zuten jende gehien



Jende multzoa, atzo, Bergarako kaleetan, Kilometroetako ibilbideko zati batean. ARGAZKIA: IKER AZURMENDI